Iakiteko duzu glanango junte eta Pesmarko harria est suest uest noroest eta dire batetik bertzera, 7 l.

Iakiteko duzu glanango esteko buruba eta benodet noroest edo suest hartzen duzula laurden bat nortetik edo hegoatik eta dire 4 l.

Iakiteko duzu les Montones eta Pesmarko harria est edo uest hartzen duzula laurden bat nordestetik edo suduestetik eta dire 5 l.

Iakiteko duzu Farrillon eta Pesmarko entrada eta baxa nordest edo suduest hartzen duzula laurden bat estetik edo uestetik.



Iakiteko duzu Persmark eta Sain est suest edo uest noroest eta dire 12 l. Baldin marea bada goardia emozu eraman etzaitzan Saiñien gaiñerat hartzazu uestetik zeren marea hagitz doha norterat.

Iakiteko duzu Sain eta Uchant nort edo su hartzen duzula laurden bat noroestetik edo suestetik eta dire 12 l.

Iakiteko duzu outantgo buruba eta saiñien uesteko buruba est nordest edo uest suduest eta hobeki doblatzeko saiñetako buruba ioanen zare suduestean zeren sen eta punta baitire nordest edo suduest hartzen duzula laurden bat estetik edo uestetik outanantik eta sanat dire bi lekoa eta sandik puntarat hirur lek.

Segidan dire Franziako eta Bretaiñiako kostako zunda uxanteraiñoakoak

Iakiteko duzu heldu bazare denbora xar batekin Arcachungo kostan muillazerat es muilla 25 brasa baino gutiagotan zeren 20 brasetan itsasoak hausten baitu.

Iakiteko duzu Cordando dorretik uest suduestean bi lekoa zabal kausituko duzula 22 brasa.

Iakiteko duzu Iruilleak nordestean 25 brasetarik izanen da leihorrat, 3 lekoa eta handik ioaten bazare nordestean itsasoak zehatuko zaitu.

Iakiteko duzu aiñetarik eta Antucharik arteanioaten bazare noroestean kausituko duzula 18 brasa eta halaber handik eta baletaraiño eta halaber olonaraiño kausituko duzula, 18 brasa eta iragaten duzunean Olona ugeseraiño kausituko duzula hogoi brasa Ollona gaiñean zarenean 21 brasetan ioaten bazare uest noroestean ioan tzare ugesen erdirat.

Iakiteko duzu pertuxaren gaiñean 70 brasetan izanen duzu leihorrat 20 l 60 brasetarik, 18 l 50 brasetarik, 15 l 40 brasetarik, 12 l 30 brasetarik, 7 l 25 brasetarik, 4 l eta baldin, 25 brasetan kausitzen baduzu basa izaren tzare malmisungo aldetik eta baldin kausitzen baduzu baba bezelako harriskoak izaren zare baleen aldetik edo hekien ingurubetan.

Iakiteko duzu baleak nordestean, 100 brasetarik izanen duzu leihorrat, 25 lekoa, 90 brasetarik 22 lek, 80 brasetarik 19 lek, 70 brasetarik 16 lek, 60 brasetarik 14 lek, 50 brasetarik 10 lek, 40 brasetarik 7 lek, 30 brasetarik 4 lek, 20 brasetarik lek, bat eta erdi.

Iakiteko duzu Olona duzunean nordestean estean laurdenean 28 brasetarik izanen duzu Olonar 5 lek, bat eta kausituko duzu zundan harea grano bezain larria.

Iakiteko duzu Ugesko Irla duzunean nortean 80 brasetarik izanen duzu ugesat 27 lek, 70 brasetarik, 20 lek, 60 brasetarik 15 l, 50 brasetarik 12 l, 40 brasetarik 10 l; orkaniarik eta ugesik artean Irlari hurbillago 4 edo 5 l; irlatik zabal kausituko duzu 30 brasa.

Iakiteko duzu uges duzunean nordestean 100 brasetarik izanen duzu ugesat 24 l, 90 edo 80 brasetarik artean izanen duzu 14 l, 70 brasetarik 12 l, 60 brasetarik 10 l, 50 brasetarik 7 l, 40 brasetarik, 4 l, 33 brasetarik dadukazula buruba noroestean eta Irla nordestean izanen duzu ugesat 2 lek.



Iakiteko duzu Ugesik eta Belilarik artean arrutan kausituko duzula 27 edo 30 brasa Belilarik eta glaranik artean est suest edo uest noroesteko arrutan kausituko duzu 40 brasa.

Iakiteko duzu berila nordestean duzunean 100 brasetarik izanen duzu leihorrat 21 l, 90 brasetarik 18 l, 80 brasetarik 15 lek, 70 brasetarik 11 l, 60 brasetarol 5 edo 6 l, 50 brasetarik lekoa bat eta erdi.

Iakiteko duzu Irla de Groy duzunean nordestean 55 brasetarik izanen duzu groiarat 2 l eta kausituko duzu basa ioaten zarela 3 l zabal Pesmarcik uest noroestean doblatuko tutzu saiñak eta baldin marea badoha hartuko duzu estetik edo uestetik zeren goaiak hagitz baitoas utanant edo saiñetarat.

Iakiteko duzu glanan nortean duzunean 100 brasetarik izanen duzu leihorrat 24 l, 90 brasetarik 20 l, 80 brasetarik 18 l, 70 brasetarik 12 l, 60 brasetarik 7 l, 55 brasetarik 4 lek.

Iakiteko duzu glanan duzunean nornordestean 100 brasetarik, izanen duzu glananat 22 l, 90 brasetarik 18 l, 80 brasetarik 16 l, 70 brasetarik 12 l, 60 brasetarik 7 l, 50 brasetarik nahi baduzu 2 lekoa.

Iakiteko duzu Pespore duzunean nortean izanen duzu leihorrat 100 brasetarik 20 l, 90 brasetarik 17 l, 80 brasetarik 14 l, 70 brasetarik 8 l, 60 brasetarik 6 l, 50 brasetarik 2 lekoa.

Iakiteko duzu Pespore duzunean nornordestean 100 brasetarik izanen duzu leihorrat 17 l, 90 brasetarik 14 l, 80 brasetarik 11 l, 70 brasetarik 8 l, 60 brasetarik 5 lekoa, 50 brasetarik lekoa bat eta erdi.

Iakiteko duzu saiñak ditutzunean nortean 100 brasetarik izanen duzu leihorrat 15 l, 90 brasetarik nahi baduzu nahi baduzu , 80 brasetarik nahi baduzu nahi baduzu l, 70 brasetarik nahi baduzu nahi baduzu l, 50 brasetarik lekoa bat eta erdi eta ez ioan gutiago ara zergatik saiñen beren kontra da 50 brasa.

Iakiteko duzu saiñak ditutzunean nornordestean 100 bras, kausituko duzun dan maskor larriak hautziak eta zunda guzia sartuko zaitzu basan.

Iakiteko duzu Lirlesen trebesean 76 brasetan kausituko duzu harze xuriak xeheak, zeinbait hautsi eta gero sartuko zare harea larrian.

Iakiteko duzu outanant gainaeen 60 brasetan kausituko duzu baa norteko arrutan zoazela eta baldin marea badoha itsasoak zehatuko zaitu glananik eta pesmarquik artean arrutan da 40 bras. Gauza bera Pesmarkik eta saiñik artean audierna gainean kausituko duzu basa saiñik eta uchanti artean nortesuko arrutan, da 50 brasa goardia emozu mareak hagitz manatzen du Lirlesko senadirat eta utananko aldaketarat ere.

Iakiteko duzu ioaten zarela Belisla gainetik saiñen bilha atheko haizarekin ez ioan 55 brasa baiño guziagotarik eta zoaz 60 brasetarik uest noroesteko arrutan eta noizere baitzare glanan edo Pesmark bezain aitzina ez baxa 60 brasetarik baldin atheko haizea bada 60 brasa horiok segituko saiskitzu saiñetaraiño baita hek doblatu eta ere ordean uest noroesteko arrutan.

Iakiteko duzu glananik eta Pesmarquik artean kausituko duzu 60 brasetan basa eta segituko zaitzu brazaia hori audiernaraiño eta utanaraiño handik harat zundan kausituko duzu haiñitz kolore eta izaren duzu 60 brasetarik leihorrat 4 edo 5 lekoa.

Iakiteko duzu unzi bat baldin bada zaiñetako puntaren basterretan atrapatuko duzu 50 brasa eta punta beraren gainean 20 brasa eta puntas barnetik 40 brasa zeren baitire putzubak, zunda zazu zeren 45 brasetarik 40 brasetaraiño guzietan arrokak baitire.

Iakiteko duzu zaiñetako arranzalek diotela badirela bi baxa zaiñetarik est uest 24 lekoa, zabal halaber lekoa bat zabal badirela 3 baxa zaiñetan baxa marean deskubritzen baitire zaiñei baitaritzate baxen freredesateko baxen kontra bada 45 brasa eta leihorreko baxen kontr bada 40 zaiñen gainean abisatuba izanen zare ez hurbilzeas 50 brasa baiño gutiagotarat.



Segidan dire Franciako eta Bertainako portutako entradak Flandreseraifioak

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Arcachunen entrada prinzipaletik hurbil nor esuko puntarik ioanen zare puntetarar, 4 brasetaraiño eta eramazu oihan xume bat zeina ikusiko baituzu est suestean eta hala estuzu perillik punta Malarenzat gero ioanen zare barnat.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu zolako pausurik emazu Cordan nortean eta zolako Santan Maria est suestean eta han den harea mendirik handiena zeina deitzen baita Puy-blanc est nordestean eta ioanen tzare Puy-blancat arruta hortan iruilles barnetik ioanen tzare harik eta Arugango gastelu zaharra zeina baita hautsia, hartuko duzu bardonko puntatik aphur bat deskubritua gastela zahar hura da unzi baten bela bezain handi; orduban utziko duzu Puy-Blanco merka, eta ioanen tzare xuxen bardongo puntarar, bethiere daramazula puntatikan gastelu hura deskubrituba, entrada hau haiñitz aldiz mudatzen da horratxe edo hunatxe eta da baxamarea ura, 2 brasa eta erdi.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Bordelleko aiñetarik emazu Cordan estean eta Rondele handia zeina baita [nahi baduzu nahi baduzu] nordestean estean laurdeneko aldetik eta ioanen tzare nordestean nortean laurdenean harik eta puiurik eman dezazuken Santa Maria zolakoarekin unzi baten bellaren zabaltazuna idokia eta den orduban Cordan nordestetik ordu hartan izanen tzare maubesean trebesean eta idokiko duzu Cordan suestea hegoan laurdenean eta noizere doblatzen baituzu maubese izanen duzu lagran Rondele nortean, eta begiratzeagatik Maueseganik ekarriko duzu eskillu dorrea bela bat bezala lehorbetzaren burubaren gaiñetik orduba izanen zare maubesean ondoan gero ioanen zare lehor arras amor ekiten diozula lehorbelzari zeure plazerera.

Iakiteko duzu heldu bazare arrotxella aldetik eta nahi baduzu sarthu bordelleko aiñetarik ez hurbil 12 brasas gutiagotarat harik eta lehen erran diren merkak hartu artean eta entrada hartan mareak bethi exar arasten du maubesean gaiñerat eta baxamarak aiñen gaiñetarat eta ez hurbil aiñei 10 edo 12 brasetarik, zergatik zundatzen batetarik bertzerat goaiak etxatuko baitzaitu hegien gaiñeras baldin itsasoa handi bada zeronek ikusiko

dituzu hausten eta aiñarik eta maubesean artean bada 22 brasa aiñen entradan 7 brasa ura.

Iakiteko duzu Malmisiones uestetik ikuziko duzu Olorongo dorrea eta noizere baitzare Oloron haren trebesean idurituko zaitzu dorre hura unzi bateko belaren gisa eta Olorongo dorreas uestetik ikusiko duzu Eliza bat zeinari baitarritza Sen Gorge eta Eliza hartas uestetik ikusiko duzu xardiñero eta xardiñero hark iduriko du hirur edo lau harea murrur eta guziek bat dirudite eta noroesteko parteko murua da handiena edo goren xardiñeros uestetik ikusiko duzu Sen Denis; es-uestetik ikusiko duzu bihaise errota, zeinak baitire mendi biskar baten gaiñean.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Arrotxellan antuxatik ekarzu deskubritua Arrotxellako hiri gustia Porneufeko puntaren gaiñetik suesteko partetik eta goardia emateko Santa Mariako Coralei eta Blanchari eta banku bati zeinarik baitarritza kalabardin eta eta muillatuko duzu xedeboren 6 brasetan eta nahi baduzu ioan unziarekin ligan barna behar tutzu ur-biziak eta plemara, eta nahi baduzu ioan Palizat edo itsasorat pertuxatik erditik est nordestean noizere baitzare kalabardin trebesetik deskubritu Palisko baia eta ioanen zare xuxen ala badierat, eta muillatuko duzu aphur bat aldatatik suesteraxeago eta izanen duzu leku ona bende-bal guzies hasi suestetik eta noroesteraiño.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu pertuxatik zeina entrada baitatza est suest edo uest noroest idukazu aphur bat zertaneko aldearekin eta aparta zakisko Sen Martingo aldeari eta erabilzazu zunda Sen Martin aldetik, eta ioanen zare muillatzerat Sen Martiñat; gero ioanen zare Port-neufko bururat xuxen, zeren zertan alde guzia leku sanoa da.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu zundan unzi handiarekin behar duzu ur bizitako plemara zergatik baxamarean entrada gustiak ensekatzen da eta barnean bada putzu bat zeinetan baita 3 brasa eta erdi.

Iakiteko duzu nahi baduzu ioan Irla d'Arcasat antuxatik ioanen tzare xuxen Irlarat eta utzazu Irla aborretik eta muillazazu baxamarean, 4 brasetan.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Olonan zeina baita 5 l pertuxatik noroesterat eta bada Olonarik eta pertucharik artean oihan handi bat zeinak baitirau pertucharaino zeinari baitarritza Monte de Jarte eta nahi baduzu sarthu Olonan ioanen zare atradarat eta muillatuko duzu 10 brasetan eta handik hartuko duzu marea barnat sarzeko.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu sen Gilen ioanen zare xuxen arradarat sen Gilen bada eskillu-dorre bat eta muillatuko duzu 6 brasetan eta handik hartuko duzu sartzeko marea.



Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu ugesen muillatuko duzu herriaren aitzinean puntas suduestetik 6 brasetan eta nahi baduzu muillatu ugesen nordesteko haizearekin muillazazu gastellu-zaharraren trebesean zeina baita Irlas suduesteko partetik 16 edo 18 bras.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu Belilan ala Mariako buruan muillazazu 10 edo 12 brasetan leku ona da suduestes eta noroestaraño-ko haizeenzat.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu Bellilan nmoroesteko buruaren alderat muillazazu 6 edo 7 brasetan bendebales leku ona da eta nahi baduzu muillatu Belilaren alentur guzietan muilla al dezakezuke erabilzen duzula zunda ben[de]boraren errespeturat.

Iakiteko duzu nahi baduzu ioan Murbianen bilha zarenean, Irla de Basen trebesean ekarri behar duzu noroesta lehor baten gainetik zeinari baitaritza Sen Iacmedarmis eslehorari sobera hurbil eta ekarzu bethi idekia eskillu dorrea puntarekin Seint Gidasten trebesean bada baxa bat eta hartarik goardatzeagatik ekarrazu piñu xume bat zeinetan ikusiko baituzu arriberan Irlas kanpotik zeina Irla baita murbiango entradan; erran den piñu hura idukitzen baduzu Irlako trenkarekin ioanen zare baxa baten gainera, baiñan erran den piñu hura idukiko duzu alderdi batarekin edo bertzearekin eta segurki ioatekotz idukazu esteko leihorarekin eta harekin idukitzen duzula izanen zare abisatua gauza guzies.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu benaudaren esteko entradatik idukazu glarango uesteko buruba Eliza iduri batekin zeina baita glarango aldean harik eta zaren artean harea Pon-lauekoaren trebesean, eta deskubrizazu glarango Irla Montoneko Irlatik Galea baten luzetazuna norteko partetik eta baldin ezin ikus badezazuke glaran edo berze Irla ekarzu oihañoa ponlabeko harearekin batean eta datza karrosa nordest edo suduest hartzen duzula laurden bat nortetik edo hegoatik eta ioanen zare costeando aborreko leihorra bezala harik eta hirur harri mendiak bat emanartean eta muillazazu aingura ensekean eta bertzea esterat Eliza baterat.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu uesteko parteko khañaletik eta baldin baduzu ezagutza leihorrena ioanen zare oihañoetarar bezala zeinak baitire benodeten aldetik eta emazu nordestean hartzen duzula aphur bat nortetik eta datza nor nordest edo susuduest.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Pesmarken barna behar duzu ezagutza arroka handienarena eta dire bia entradan, bata esteko partetik eta bertzea hegoatik eta hegoako partekoa da handiena zergatik entrada hegoatik eta baldin heldu bazare sartzerat pesmarken borxas ioanen zare

xuxen arrokari handienetarar zeren han kausituko baituzu entrada eta arrokari handiena utziko ditutzu aborretik eta ioanen zare xuxen harea baterat, eta muillazazu 7 edo 8 brasetan.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Antonaren arras emanen diozu amor buruko farrilloso; iakiteko duzu mareak etxatzen dubela estebenetarar eta noizere baizar estebenetan zoas nortean nordestean laurdenean harit eta pasa dezakezun artean gulera eta sarzen bazare antonatik eta nahi baduzu ioan Gradonat barnetik letorlinga hartuko duzu lekoa bat nortean nordestean laurdeneko burutik baxa batetarik zeina baitaza nortean eta gero ioanen zare xuxen torlingarat nort nordestean eta uziko dituzu aborretik eta ioanen zare erditik gradungo leihorra bezala eta muillatuko duzu 5 edo 6 brasetan eta atherako zaizu S Maiko uesteko buruba noroestean.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu gradun zaharrea buru bat da haltoa entradako buruaren trebesean bi ajusta zabal bada baxa bat, zeina baita deskubritua nagiz leihorrean edo ioan nagiz zabal eta muilla aizinean 5 edo 6 brasetan.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Bresteko baiian entrada estean eta khalaren erdian badu arroka bazuek zeinei baitarizate silhetez marea erditarik harat estaliak dire eta baxamarean ageriak dire utzazu galñazarrerano ea nola duzun haizea hek dire khalaren erdian deskubrizean hegoako baiako Irlak eta mullatuko duzu plazer duzun lekuban leku gustietan leku ona da eta garbia.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu bresten barna ioanen zare xuxen gastelurat eta uziko duzu istiborretik eta sarthuko zare khalaren erditik xuxen eta muillatuko duzu Gastelubaren eta berze alderdian den harearen trebesean 7 edo 8 brasetan.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu bertumen noroestarekin edo nortarekin edo nordestarekin muillatuko duzu harearen trebesean 4 brasetan eta uesta ethorriko zaitzu Irlako puntaren gainetik eta han da harea bat eta hartan bada ithurri bat zeinetan baita ur estia.

Iakiteko duzu berthumeko irlikan herat badela baxa bat peza kolpe baten menea, eta haren gainean da bi brasa eta erdi ura.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu S Maion nortarekin edo nordestarekin muillatuko duzu 15 edo 16 brasetan eta nahi baduzu ioan S Maiotik bertumerat, idukiko duzu idokia bermigel eta S Maiuoko punta baxagatik zeinari baitaritza Galinaterre.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu S Cicuen zeina baita S Maios nortetik S Maiotik eta Conquetik artean da nordestarekin muillatuko duzu



7 edo 8 brasetan eta nahi baduzu muillatu Conqueten muillazazu 6 brasetan bainan leku gaistoan izaren zare zeren goaga handiak dabilza eta nahi baduzu sarthu Conquetko kajean urizi batekin bi brasetarik hartuko duzu plemara eta noizere baitzare Cagean ensekean egonen zare eta harea gogorraren gainean.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu balsanimen barrena muillazazu 7 brasetan lekuba ona da bendeballarekin, eta baldin bazoas S Maiorat edo hurrat barnetik ioanen batzare unatereren hurbil basanimko puntaren arraz baiñan apur bat, amor ekin beharko diozu punta berari; iakiteko duzu harea edo kosta xume bat badela conquetes nortetik eta unaterredaza est uest ; unaterre da arroka bat zeña agertzen baita baxamarean eta bada pasaia nahi alderdi batetarik edo bertetik.

Iakiteko duzu nahi baduzu ioan S Maiortik auhurat eta hartubak baitutzu markak zoas nortean nordestean laurdenean eta emanen duzu S Maioko Eliza deskubrituba conquetko puntatik bela bat baiño gehixago eta hunela ioanen tzare hurrat.

Iakiteko duzu unzi bat ioaten bada balsanintik hurrat ematen badu S Maioko Eliza conquetko Silerezin ioanen da baxa batetarat zeña baita Irladeogarren trebesean.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu barbaraquen uesteko partetik esagutu behar duzu port Sautko leihorra eta gero izanen tzare arroka batzuketar zeña baitaunza entradatik est uest eta arroka hek badidurite organoak eta noizere baitzare hekien trebesean ioanen zare estean; ioaten zarenean estean, ikusiko ditutzu nordesteko partetik arroka batzuket eta hemengo markak dire hauk Eliza bat zeña baita mendi xume baten gainean eta badirudi labe bat eta itsasoaren aldean arraso dela eta emanen duzu erran den Eliza hura merka hetan eta deskubrizazu entrada, zeren Elizako merkak utzi behar tutzu baxa batengatik, zeña baita zartzerakokan entradan ababorretik eta noizere baitzare baxa haren trebesean begirazazu istiborrerat eta deskubrizazu hareasko mendi bat, entradako lehenbiziko arroka handiarekin, leihorrean denarekin; gero ioanen zare plazer duzun lekura, zeren guzietan leku ona baita eta garbia.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu norteko khanaletik, barbaraquen ezagutu behar tutzu barbarak hartako errekestak eta entrada ondoan ioanen tzare mendi batetarat eta gero mendi hartarik barbarako errejistetarat eta noizere baizare entradan begiratuko duzu susuesteko alderat eta ikusiko duzu leihorraren gainean haize-errota bat eta gero denbora guzietan ioanen zare errota hartarat, hatik eta entrada gustia deskubritu artean;

gero nois ere baizare entradaren erdian ioanen zare kanporat plazer duzun lekurat.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Irla Debasen barna izanen duzu ezaguzeko S Pol Leongoko eskilladorrea zeña ageri baita itsasotik hagnosis urrundani, zeinak baitiduri direla unziaren bi mastak.

Iakiteko duzu nahi baduzu ioan hurtik barbarakat edo dela gabas edo dela sarrasonarekin haize handiarekin ez hurbil leihorrat, 40 brasas gutiagotarat, zeren arroka beren kontra bada 35 brasa.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu nahi baduzu S Gidasten, ikusiko duzu Eliza xuri bat harrobi baten gainean, eta emanen duzu Eliza habarren erdit sar zaite barnat, eta emozute amor suduesteko puntari harik eta baxa itsuak puntas kanpotik deskubritu artean eta muillatuko duzu plazer duzun lekuban barnean eta habra edo entrada daza nor noroest edo su suduest eta begirazazu barbaratik galbairat 35 brasa.

Iakiteko duzu galbaitik Irla de Baserano hurbil ahal zaiteske 25 brasetarat, harik eta leku planak aizinean dituskezun artean.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu brehacquen ankrazoian uest aldeko puntan muillazazu 8 brasetan eta izanen duzu ondo garbia eta ioan nahi baduzu hirirat zeña baita brehacez hegoatik zeñak baitu izena Ponpul, muillazazu hurbil hiriri eta nahi baduzu ioan bilha Sen Michelen partitzen zarella breacko ankrazoinetik est suesteko arrutan kausituko duzu Cap de Lara eta badire batetik bertzerat 18 lekoa.

Iakiteko duzu menturas heldu bazare Lorrenes kanpotik bidearen erdian da Roquetobas eta eta ioaten zarella est suestean ioanen tzare Senmaloako Konporterer erdirat eta baldin ezin sar basaiteske barnat, ioanen tzare lateko Gastelubaren trebesrat eta muillatuko duzu 8 brasetan.

Iakiteko duzu menturas muillatu nahi espaduzu eta baldin bazoas Conportetik, iakiteko duzu behar dubela abiasatuba gison batek untzi baten sartzekos merka hautan iakiteko duzu konporta dela aborreko aldeetik eta badela han Eliza xume bat eta utziko tutzu aborretik eta gero hartuko tutzu merka hauk iakiteko duzu ikusiko duzula hiri bat zeñari baitarritza zite Bielle Sen Maloas suestetik eta noizere baitzare konportan hartuko duzu Sen Maloako hiriko murailla eta zite bielekoa esteko partetik eta ioanen tzare Sen mloako hiriarren gainerat eta emanen duzu barnat marka hartarik eszifa baten luzerasuna eta muillatuko duzu Sen Maloako aldetik eta bada Irla xume bat zeñari baitarritza Santa Marie de Boia, eta goardia emanen duzu etzoazen haren gainerat, zeren haren arras bada baxa bat, eta ioanen zare lehen erran den Sen Maloako eta zite bielleko muraillen merketan eta ioanen tzare muillatzerat Sen Maloaren trebeserat,



eta baldin plemara bada 13 brasada ura eta baldin baxamara bda 4 brasa, eta baldin muillatu nahi espaduzu, ioanen tzare zite Beillerat eta ikusiko duzu ababorretik, eta ikusiko duzu barnean gastelu bat eta ioanen tzare muillatzerat haren trebeserat aiñgura bat emanen duzu leihorrean zite Bielleren alderat, eta bertzea hegoarat ensekean hunetan harea izanen duzu.

Iakiteko duzu baldin menturas ilkitzen bazare koportetarik kanporat eta ioan nahi baduzu brehazen bilha etzoazela uest noroestean baldin brehazen barna nahi espaduzu, baldin marea kontra baduzu eta baldin plemara badoha, ioanen tzare uest noroestean, eta baldin baxamara badoha, ioanen tzare noroestean uestean laurdenean, eta hunela ungi ioanen tzare bide erditaris eta handik ioanen tzare bertze bidearen erdian uest noroestean, hau da, Lorrenetik Arroque Tobasat eta Arroque Tobastik Sen Maloarar.

Iakiteko duzu breatik landrigerat badirela 4 l eta badire bi khalal ize-nak dituste bata almades eta bertzeak torata, eta ezta posible sartzea non ezten itsasoa eder, eta bada Sengidasat lekoa bat, eta baldin bazoas Sen Gidasko arradaren gaiñerat kausituko duzu arbola bat, zeña baita norteko partetik, eta daritza Port-blanc, eta badirudi dela Sen Gidasko entrada den arbola bat, Sen Gidasat bada lekoa bat arbola hartatik eta bi arbola hek hakitz dute bata bertzearen iduria, zeren haiñitz untzi sartzen da Port blanquen ustes eta Sen Gidasten sartzen delakotz, eta iakiteko duzu Sen Gidastek baditubela etxe batzuben mariñan eta badu hirias suduestetik Eliza bat, eta han zarzekotz hartuko duzu Eliza baten eskilla+dorrea este-ko parteko portaleekin bezala eta ikusiko duzu arbola hura deskubrituba eta muillatuko duzu plazer duzu lekuban haizerik gaistoena da noroesta, hau da Sen Gidasten entrada d'Arza nornordest edo susuduest.

Garnisen barna sartuko zare susuduesteko puntatik eta egiñen diozu amor puntari, zeren baita baxa bat puntatik bi abustetan leihorretik baxa hura agertzen da baxamarean, eta muillatuko duzu lehenbiziko harearen trebesean, eta nahi baduzu ioan hiriaren aitziañerat hartuko duzu plemara.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu Chiribucquen muillatuko duzu aphur bat hirias uestetik 6 brasetan, eta izanen duzu abrio nordestetik suduesteraiño atheko haizea, eta nahi baduzu Chiliburquen barna sarthu, hartuko duzu plemara eta utziko duzu hiria istriborretik eta sarthuko zare erditik, zeren guzia ensekatzen baita.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu alahogan emanen duzu punta nor noroestean eta muillatuko duzu 6 brasetan.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Villa-Ruillen hartuko duzu plemara, zeren baxamarean espaita braza bat eta erdi baizen eta entradako markak hartuko tutzu buru zuri bat zeña baita taillatua eskallerak bezala, zeña baita bive Flor gaiñean est nordestean eta ekarriko duzu deskubrituba buru hura Cap de Sente Maire Bive florkoarekin eskifa baten luzetazunean hunela sarthuko zare khalalaren erditik eta muillatuko duzu Rotierik haltoenean, 6 brasetan, eta ioan nahi baduzu Biveflorat hartuko duzu itsasoa eder eta marea ona baldin untzia handia baduzu.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu Diapako orkaden muillatuko duzu 8 brasetan ageri dela iustizia eta noroesta erhorriko zaitzu puntaren gaiñetik.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu cap d'Arnesen muillatuko duzu heriaren trebesean, 15 brasetan.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu Calesko orkaden muillazazu 6 brasetan ziteren aitziañean eta nahi baduzu muillatu Calesen barna hartuko duzu plemara eta utziko duzu entradako dorrea istriborretik eta ioanen tzare costeando Palizade bezala, eta amarratuko zare ala Foson, zeñetan izanen baitzare ensekean.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu edo sarthu milanbarquen erabiliko duzu zunda eta hartuko duzu ostendako trebesea eta ioanen tzare 5 edo 6 brasetarik eta ioanen tzare horla harik eta Isko eskilla dorrea eman dezakezazun duringesko eskilla dorrearekin eta hartuko duzu markatzat Casolleko Eskilla-dorrea kable bates norteratago eziñez Irla de Chacolleko harea pugu bat zeña baita arriberan, eta erran den marka hunetan ioanen tzare harizeta Sante Catharineko dorrea eta Descapolgo dorra biak bat eman artean; gero ioanen tzare nordestean harik eta bankuba iragan artean gasarolleko puntakoak eta hareraiño emanen duzu Chacolleko punta Retanburko Santa-Mariarekin, gero ioanen tzare est nordestean aphur bat hartzen duzula nordestetik xe harik eta Chacoleko bankuba iragan artean.

Iakiteko duzu Chacoleko dorrea duzunean susuduestean izaren tzarella Chacoleko bankubaren trebesean.

Iakiteko duzu merka hautan haiñ ungi sarahab zaiteskela noizere baitzare Carekonen emanen tutzu Santa Catalinako dorrea eta Descrapolgo dorrea biak batean eta ioanentzate nordestean harik eta Chacoleko punta emanen dezakezun artean Retanburko Santa Mariarekin, gero zoas nordestean estean laurdenean harik eta deskubri desakesun artean kable bat pichilingako dorrea lehen erran den bezala eta orduban estuzu izanen perillik Chacolleko bankubarentzat eta ez bertze



garabenzat eta erabilliko duzu bethi zunda istiborreko aldetik, eta hurbilduko zaisko leihorrari 5 edo 6 brasatarat, zeren urik xumena da Carrosa hartarik eta noizere baituzu Retanburko Santa Maria lescluseko Gasteluko Kabailleriaren etxearekin bat izanen duzu baxamar guzies 4 brasa eta erdi khanalean basa handia da.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Zelanden edo Agnoczes trebesa noroestetik eta sartzekotz behar duzu haisea khanalekoa eta hartuko tutzu segidan diren merka hau; iakiteko duzu duneko dorrea harik eta ostenderik eta blanca bergeraiño eta duna gasteko dorrea eta durnigesko dorreak dauntaza noroest esuest dorre horiek marka onak dire Carrosatik sartzeko eta ioanen tzare zundan, 5 brasatarik costeando eta hartuko duzu duna GAsteko dorrea leihoretik zergatik harri mendi batzubenk baitire arriberan dorreari datxeskala ekarriko duzu dorrea hareasko puu batzubenk dire leihor aldetik untzi baten belaren zabaltazunean, hunek goardatuko zaitu darangerko bankutik, hau badoha ostendeko kostarat eta handikan Santa Cataliñako puntarat.

Iakiteko duzu borxak ezin gehiago egiñes sar-arasten bazaitu les clusen ioanen tzare costeando hala nola baldin baziñe les clanden ioanen tzare haretaiño eta emanen tutzu trois boisak Santa Cataliñarekin eta gero ioanen tzare harat merka hartan edo ioanen tzare suestean, zeren hala baitatza Carrosa lehenbiziko trois Boisetik eta gero ioanen tzare Kostabera gisa zerori iduritzen zaitzun bezala.

Iakiteko duzu menturas denbora xarres kurrizten bazindu Olandako kostan despazatzen duzula Zelande edo dela Fortunas edo dela denboras Zelandako Irlan bada gauza guzien gaiñetik dorre handi bat eta bi xume, bata bertzearen hurbil, eta izanen tutzu deskarpolen esaguzatzat harea handi batzuk zeinnetan harea hartan baita dorre handi bat luzea eta hertzia nordesteko partetik eta bertze xumeagoko bat luzea marka hautes esagutza hartuko duzu despasatu duzula Flandresko kosta eta leihor hau datza est suest edo uest noroest eta zunda zenba duzu kausituko duzu 18 edo 20 brasa etzaitezela hurbil 12 brasatarik ez hain guti hain barnasat, kosta hartan harik eta burubak ilki artean est uest hareraiño eta duzun desku-brituba entrada gero ahal zoaske istiborreko konsta bera bezala zundatzen duzula, 5 edo 6 brasetan harik eta Lesbogeseraiño, iakiteko duzu entrada hura dela bogesetik lescluserat bezala eta da baxamarean bogesen 3 brasa ioanen tzare horla eta izanen tzare abisatuba gauza guzies.

Iakiteko duzu baldin bazare menturetaren ere Flandresko kostan pasatuak mongeko eta neuportuko bankua eta Zingletan ezin errepara badesakesuke kurrizazu nortean nordestean laurdenean eta ioanen tzare leku

baterat zeinñari baitaritza cap de Untre. Iakiteko duzu bide hortan arruta hortan ioaten zarela kausituko duzu banku bat zeinñari baitaritza Flestande eta da luzetazunean 4 l eta zabaltazunean 12 l, eta hunetan ezta 18 brasa baiño gutiago, eta iakiteko duzu noisere kurritu baituzu nortean nordestean laurdenean 45 l kurrizazu nor nordestean eta ioanen tzare cap de Geserorat bada Ostendetik cap de Geserorat 22 l ikusiko duzu buru haren gaiñean bi mendi handi eta buruba arrasoa da, alderdi bat du noroest edo suest eta bertze alderdia nordest edo suduest noroest esuest dohan kosta, doha nogarat eta nordest esuest datzan kosta doha apri-carat noizere baitzare burubaren aldean suesteko partetik bada portuba nahi baduzun bezanbat; iakiteko duzu partitzen zarela nieuportutik edo Mongesetarik kurrizten duzula nortean kausituko duzu leihor bat zeinñak baitaduka hauraren gaiña zeinñari baitaritza estuba eta da trebesia 32 l, eta da leihorra hareaskoa.



Segidan dire Galesko portu- tako entradak eta mirafurdeko portutako entradak

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu Caldeien zarra zaite Caldeko Irlan eta emazu Irla suestean eta noizere deskubrituko baituzu Irla Barneko eskilla-dorre xumea muillazazu herriaren trebesean eta izanen duzu baxamarean lau braza eta erdi eta plemarean 11 brasa.

Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu mirasurden barna entrada d'Atza est uest eta ioanen tzare ababorreko puntaren erdirat bezala, bada Eliza bat eta iragaten duzunean Ermita bat zeña baita istiborreko aldean eta muillatuko duzu 5 brasetan, eta nahi baduzu esagutu mirasurdeko portua, bada herri bat zeñari baitaritz dulle, ikusiko duzu ababorreko buruan Irlas itsasoko aldetik lekoa bat zabal Farrilonsetarik esteko partetik eta bada harea bat portutik hurbil, eta leihorrean esteko partetik guzia da plana eta arrasoa, eta egiten du hirur buru balire bezala.

Iakiteko duzu plemarean Caldey dela luzeago eta betheago, eta bada Eliza biribil bat zeñak baitirudi gastelua eta Caldeies esteko partetik ikusiko duzu arroka bat hirias est nordesteko partetik han da portua zeñetan egoten baitire baxamarean ensekean; kaldeik eta tenebiyrik artean badire baxa gaisto batzuek zeñetan estalzen baitire marea erditan eta heldu bazare Caldeitik mirafurderat bada baxa bat aitzinean eta begirautzu hurbilzeaganik atherat ilkizen den entradari eta baxagatik guardatzeagatik idukazu Caldey deskubritua leihorras kanpotik eta baxa da esteko puntaren trebesean, eta gero doblatzen duzunean estuzu deuzenzat beldur behar eta ioanen tzare muillatzerat.

Segidan dire zizergatik ioatekotzat Angleterako khanalerat eta hango zundak

Iakin behar duzu unzi bat partitzen denean Zizergatik eta ioaten denean Ouchanten bilha nornordest edo susuduesteko arrutan eta baldin zundatzen badu eta kausitzen 100 edo 90 edo 80 brasa eta baldin horiotan atrapatzen baduzu zundan Iondoni Iaquaco maskorrek edo basa orduan motinesko partetik edo Irla [Jaco aldean, eta baldin marea bada, ioanen zare nortean Uchantengatik goardatzeagatik.

Iakiteko duzu Uchanten bilha ioaten zarenean nornordesteko arrutan eta duzunean 80 edo 90 brasa, izanen duzu sañetarat 13 edo 14 l eta baldin atrapatzen baduzu basa seiñale xeherikan gabe izanen zare Irlan eta brasaia estuzu xumetuko eta baldin zundatzen baduzu eta hartzen 80 brasa eta atrapatzen baduzu zundan Iondoni Iaquaco maskorrek besalakoak, ioanen zare xuxen nortean Ucahnty ez hurbilzeagatikan harik eta nordesterat ekarri artean.

Iakiteko duzu Uchant duzunean nordestean 85 brasetaritan izanen duzu Uchantat 22 lek eta ekarriko duzu seiñaletzat zundan harea xehea eta 80 brasetaritan 20 l eta 75 brasetarik 15 l eta 70 brasetarik 10 lekoa leihorrat.

Iakiteko duzu ioaten zarella nort nordestean eta zundatzen baduzu eta kausitzen 75 edo 80 brasa eta hetan kausitzen baduzu harea xehea eta Ferdekarakoa izanen zare uchantik hurbil, eta baldin denborak obliga arasten bazaitu edo Klar izanak ioaterat nordestean Uchanten bilha izanen dire Uchantat 10 edo 12 lekoa.

Iakiteko duzu baldin zundatzen baduzu 70 brasetan eta ekarzen seiñalea mazkorrek harea harri bezala eta izanen zare Uchantes barnetik eta ilkiko zaitzu suestean khanalaren barrenean zaren crespaturat Uchantik eta longaneosik artean zundatzen baduzu eta hartzen 70 brasa harea larria eta gorrikara izanen tzare Cap de Corneil alderat eta izanen duzu leihorrat nornordest edo susuduest 15 edo 16 lekoa.

Iakiteko duzu Corneil aldaketan segidan dela eta noizere baitzare burues barnetik eta zundatzen 50 edo 53 brasa eta ekartzen seiñalea harri belxak Mazkor Korala bezalakoak izanen zare Cap De Alizarten inguru-



tan eta baldin bazare grabas edo sarrasoïñarekin Cap de Alizarten aldeketan ez hurbil 50 edo 45 brasa baiño gutiagotarar.

Iakiteko duzu Saiñik eta Surlingarik artean nornoroesteko edo susuesteko arrutan kausituko duzu 70 brasa Uchantik artean eta estean Uchant noroest edo suest hartzen duzula laurden bat nortetikako edo hegoatikako arrutan kausituko duzu 75 brasa, eta ioaten zarela Uchantik noreostean kausituko duzu 66 brasa, ioaten bazare Uchantes itsaso alderat kausituko duzu 75 brasa ioaten zarela suestean doblatuko duzu zain.

Iakiteko duzu Saiñek duzunean nortean 100 brasatarik izanen duzu Saiñotra 15 lekoa, 90 brasatarik 13 lekoa, 70 brasatarik 8 lekoa, 60 brasatarik 4 lekoa outanant duzunean nortean, 64 brasatarik 4 lekoa Outanant duzunean nortean, 64 brasatarik izanen duzu outanant 4 lekoa, baiñan egizu ungi goardia zeren goaiak handik dabilza uchantik eta zaiñik artean eta arrutan da 50 brasa ez baxa gehiagotarar, eta baldin marea badoha, zoas nornoroestean eta etxatuko zaitu erroten gaiñerat, zeren goaiak hagitz manatzen baitu.

Iakiteko duzu ioaten bazare turianeren edo cap de Alizarten bilha, 80 brasatarik izanen duzu cap de Alizartat 40 edo 45 lekoa, eta kausituko duzu harea larria mesklatua Cap de Alizarten trebesean 8 lekoa itsasorat kausituko duzu, 57 brasa seiñalea gorri zara harea larria hurik eta longaneosik artean kausituko duzu khanalean 60 brasa.

Iakiteko duzu Barbaraquen trebesean edo Irla de Basen trebesean uchant duzula suestean hartzen duzula apur bat hegoatik kausituko duzu zeinbat lekutan, 70 edo 75 brasa eta baldin hartzen baduzu 60 brasa seiñaleak dituela baba bezalako harriskoak izanen zare Irla de Bas alderat hurik eta gualbaien artean, 43 brasatarik izanen duzu leihorrat lekoa bat, eta 63 brasatarik bi lekoa zaspi Irlak suesteko partetik eta 53 brasatarik 8 lekoa leihorrat.

Iakiteko duzu baldin bazare Roquetobasen trebesean 40 brasetan eta baldin kausitzen baduzu harea larria gorri zara, ioanen tzare guzia norterat doblazeagatik cap de Grane Remiren trebesean kausituko duzu ur handia edo apika.

Iakiteko duzu Surlingarik eta cap de Alisarraiñokoan baldin gabas bazare edo sarrasoïñarekin etzaitzela hurbil 50 brasa baiño gutiagotarar eta cap de Alisartik gaudesteraiñokoan etzaitzela baxa 40 edo 45 brasatarik; halaber gabarekin edo sarrasoïñarekin gaudesterretik eta Porlauserainokoan ez baxa 30 edo 35 brasatarik eta Porlaustik Irla Duicat eta Beochoperaiño edo Romanoiseraiño edo dela gabas edo sarrasoïñarekin etzaitzela baxa 20 brasatarik eta brasaia berean ioanen tzare dobraraiño.

Iakiteko duzu Irla de Bas eta Fabici artean kausituko duzu khanalean 55 edo 57 brasa eta Fabricques est suesteko aldetik Fabvictik 5 lekoa zabal kausituko duzu arrokadi bat zeifetan haren beraren gaiñean espaita 12 brasa baizen eta haren abazerean bada 50 braza.

Iakiteko duzu Artamuarik eta zaspi Irlen artean khanalean 47 brasa gaudesterrik 3 lekoa zabal kausituko duzu 35 edo 37 brasa, harea gorria mazkor nahaste; halaber kausituko duzu limen trebesean harea larria Porlausko zaken sarthu artean baita halaber linberaren gaiñean kausituko duzu 38 brasa, baita halaber zundan ekarriko tutzu harrisko handiak.

Iakiteko duzu Portlausen trebesean bistan duzula Lim kausituko duzu 35 brasa eta seiñalea ekarriko duzu harrisko xehe xuriak eta 30 brasetan ekarriko duzu zundan leku batzutan harriak.

Iakiteko duzu Garniserik eta Porlausik artean badela khanalean 40 edo 45 brasa ioaten zarela kasketarik eta Porlausik artean doblatzekotz beouchep ioanen tzare estean nordestean laurdenean.

Iakiteko duzu Irla Duiquik eta Alahogarik artean khanalean dela 35 edo 40 brasa eta alahogako partetik guzia arrokas bethea da eta Angeleterrako partetik guzietan garbia da hunela merka haui goardia ematen diozutela iakinen duzu ea zein partetarik zaren.

Iakiteko duzu Torostik 4 lekoa zabal kausituko duzu 25 edo 27 brasa, eta Seint Elenes hegoatik 4 edo 5 lekoa zabal kausituko duzu 26 edo 27 brasa, eta ioaten bazare aitzaiño kausituko duzu 35 edo 40 brasa eta estuzu beldurtasunik behar ioaten zarela estean nordestean laurdenean hartu beharko duzu ezagutza beochepena.

Iakiteko duzu baldin bazare 20 brasa eta etxazen bazaitu guaiak edo berze fazoines zite ville gaiñerat kausituko duzu zundan arroken kolpeen seiñaleak eta burunear harri desilatuaren gisakoak, orduan izaren zare zite vielleren paradetan, zunda hau zerbitzatuko edo segituko zaitzu, 6 Caleseraiño 20 brasetan ezagutza izateko Beochopena edo Herlagerena estretxuan sar zaitezzen baiño lehen.

Iakiteko duzu beochepetik eta antiferik artean khanalean badela 30 edo 35 brasa, Diaparik eta Chanbrarik artean kausituko duzu brazaiia bera baiño herlageses uestetik, 2 l zabal bada leku 10 edo 12 braza da.

Iakiteko duzu Dobrarik eta Boloinarik artean bada banku bat zeifetan espaita 3 brasa edo 3 eta erdi baizen banku hau bera datza nordest edo suduest eta dobratik datza nor noroest edo susuduest eta bankuari daritza folok estan eta Angeleterrako leihorrik eta bankuarik artean bada 25 edo 26 brasa, eta bankuarik eta Picardiarik artean bada 24 edo 25 brasa,



zunda falsoa da bi aldetarik are falsago Picardiako aldetik ezin ez Angeleterrako partetik.

Iakiteko duzu dobrarik eta Saucaterrik artean badela 22 brasa eta leku batzuetan bada 27 brasa dobrarik eta Calesik artean bada 27 edo 28 brasa.

Segidan dire Turianetik ioaten zarela Surlingaraiñoako zundak

Iakiteko duzu haecetzen baduzu zunda 60 edo 65 brasa kausitzen baduzu harea xehea zeinbait mazkor ttipi gorri duela, orduan izanen zare longaneosko paradan, eta baldin egiten badu klar, ikusiko duzu mendia eta hartas gidatua izanen zare, eta baldin gaba baldin bada edo sarrazoiña, ez ioan 50 brasa baiño gutiagotarat.

Iakiteko duzu Surlinga duzunean nortean nordestean laurdenean 80 brasetarik, ioanen duzu Surlingarat 18 lekoa, eta zunda ekarriko duzu bethea Ioandani Iaquaco maskor iduris, eta zeinbait harri piska eta Surlingako parte guzietan menturas atrapatuko duzu zeinbait mazkor eta hunelatan abisatua geldituko zare.



Segidan dire Irlandako zundak eta Saltesko Irletakoak abisatzen zaitut nort esukoak

Iakiteko duzu unzigarabek estuela baxatu behar saltesko Irletarik eta cabobiesoraiñoan edo dela gabas edo dela sarrazoiñarekin 25 edo 30 brasa baiño gutiagotarat; halaber cabobiesotik eta cap de Claraiñoan etzaitzela hurbil gabas edo sarrasoinarekin 40 edo 45 brasa baiño gutiagotarat, eta cap de Claratik eta blasquesetarañoan etzaitzela hurbil 60 brasa baiño guziagotarat, non estuzun leihorra ezagutuba.

Iakiteko duzu ioaten bazare Irlandako Kostaren bilha joclaren edo Gatafudreren paradetarat, eta ioaten bazare leihorraren bilha, iakin behar duzu parada hartan lekoa bakotxekotzat abaxatuko zarela brasa bat ures, eta baldin bazare cabobiesoko edo gizailleko paradetan lekoa batenzat abaxatuko zare brasa bat eta erdi ures, eta baldin 7 chateusen paradetan lekoa bakotxarenzat xumetuko zaitzu ura bi brasas eta erdis eta baldin ioaten bazare viceren bilha lekoa bakotxekotzat abaxatuko zaitzu ura hirur brasas eta erdi hau aditzen da bankuaren entradan ioaten zarela nor-teko arrutan hunela iakiñen duzu canon izanen zare.

Iakiteko duzu baldin bazare surlingarik eta cap de Clararik artean eta baldin bazabilza luetan eta baldin zundatzen baduzu eta hartzen 60 brasa, baldin basare surlinga duzula est suestean izanen duzu surlingarar 10 edo 12 lekoa eta baldin parada hortarik ioaten bazare nornordestean edo nordestean nortean laurdenean kausituko duzu 55 brasa eta ekarriko duzu seiñalea harea larria belza eta estuzu beldur behar leihorrat konpasu handia duzun, eta baldin zunda hortarik baldin bazare 7 edo 8 lekoa, eta hartzen baduzu 65 brasa eta basa handia izanen duzu cabobieso nordestean hartzen duzula apur bat estetik, eta baldin zunda hortarik baldin bazare uest noroesterat 3 edo 4 lek eta kausitzen baduzu 50 brasa harea garbia izaren zare Zurlingarik eta Cabobiesorik artean.

Segidan dire Irlandako portutako entradak eta ezagutzak

Iakiteko duzu Blanquetinek duela suduesteko burua xumea itsaso aldetik eta baitu bi Irla eta burutik hurbillena du arrazoena eta itsaso alderat dena da handiena, eta da biribilla, eta haltoa, eta badu muillatze kotzat leku ona suestetik eta nordesteraño Blanquetinetik eta Iocleraiño badire 2 lekoa, Iocle hura da mareasko portua, eta badu irla bat itsaso aldetik santa Clara irla bezalakoa.

Iakiteko duzu Iocletik armorrat badirela 2 lekoa; armorek badu arroka bat eta eskatadi bat, eta buruan badu baxa bat kable bat zabal banean putzu ona da, 5 brasa ur etxe hautsi baten aitzinean, eta noizere baitzare putzuan ikusiko duzu eskilladorre halto bat eta idukiko duzu abrio suesteraño.

Iakiteko duzu Dartunelagetik eta condorat badire 5 lekoa, Kondorda Rosik eta Port benturatik artean bada portuas suduesteko partetik Irla bates Bristoalgora bezain handia; portuaren entradan bada Irla bat baiñan ez hain handia, Irla alderako bi punta eta bada 12 edo 14 brasa, eta baldin bazoas marketan puntarat baiño lehen ikusiko duzu puntan Iar+toki bat, eta ioanen tzare xuxen harat, zeren guzietan leku segura da, eta ioanen zare Clasieren kontra kontra, zeren baitire baxa itsuak kantoin guzietarik, muillazazu 10 edo 11 brasetan, Portu huntan Irlas esteko partetik edo uesteko partetik; Portu hunek badu esteko puntaren gainean dorre bat, eta hunetan ezaguza aha dezakezuke.

Iakiteko duzu nahi baduzu ezagutu drosei eta haren Irlak heldu zarela itsasotik ikusiko duzu hegoako partetik trebesean bi mendi haundi esteko partearekin, estuzu ikusiko leihor garabik lekat cap de Clara 3 lekoa biren eta brianen alderat esteko partetik, eta heldu zarela itsasotik, ikusiko duzu mendi handi bat est suesteko partetik; briango entradan baitre bibarra, ikusiko duzu gastelu xuri bat eta entradas uesteko partetik badu baxa bat bi eskatadiren trebesean, eta entrada datza nornordest susuduest.

Iakiteko duzu ioaten zarela uesteko burutik cap de Clararat ikusiko tutzu bi edo hirur mendi halto biribilak, zeinak baitirudite irlak, eta badi-rudite itsaso zabaletik cap de Clara, eta bada mendi biribil bat norteko



leihor guziak egiten du arraso lekat erran diren mendi hek eta hunela ezagutuko tutzu leihorrak, eta gero ikusiko duzu 7 Chateix eta arraso egiten du irla baten gisa, eta baidre gastelu bat edo bia Cabobiesos beherago, eta itsasorat lekoa heren bat badu baxa bat.

Iakiteko duzu baldin bazare cabobiesorik eta 7 Chateusik artean ikusiko duzu cabobiesos gainetik mendi biribil bat, hartas uesterago eta berze mendi bat galea baten gisa lehenekoa baiño handiago eta luzeago, eta ikusiko duzu bertze bat uesteko partetik zoas erdirat, nola cabobiesotik egiten baitu baxoa eta biribilla ioaten zarela hegoan cabobieso gainean leihor guziak egiten du arraso eta ikusiko duzu gastelu bat esteko partetik eta estuzu ikusiko bertze mendirik harik eta Ioclerano 7 Chateusen gainean uesteko partetik badu mendi handi doble bat bertzeak baiño handiago.

Iakiteko duzu Coerca de la Cabobiesotik 5 lekua eta coercao entradatik uesteko alderat ikusiko duzu buru eder bat eta arraso arriberan eta leihor guzia hagitz da plana arradas nordestetik badirudi badela bertze arrada bat baiñan ezta, eta gero ikusiko duzu halte de Mongarbay lalteren behereko ladean est uesteko partetik dire ocla eta Iocle biak dire mareasko portuak.

Iakiteko duzu Iocle gainean ikusiko duzu mendi handi bat eskonkarbaikoa bezain handia eta mendi hark baitu sei piller xorroits eta noizere izanen baituzu piller hura nornordestean; izanen duzu Iocleco entrada nornoroestean Iocles uestetik bado irla bat eta harea bat baiñan hau ezta Iocle bezain handi eta est nordesteko partetik bada buru eder bat.

Iakiteko duzu Mongarbay dela mendi bat eta ezta kosta guzian lekurik hain haltorik, noroesteko partetik egiten du arrasoena eta est uesteko partetik badu herreka bat, Mongar baitik Gatasurderat badire 7 lekua.

Segidan dire Saltesko Irletarik eta Oliereraiño eta Christeraiño eta Beualmaresraiñoeko trebe- siak

Halaber Baldresi eta Garmensiko Irla nordest suduest eta dire 18 lekua Baldresinek baitu ezagutzazat buruas kanpotik bi irla eta pasaia ona du hegien artetik eta badu mendi bat eta etradan badu irla bat zeñiak pasaia ona baitu barneko aldetik eta iragaten bazare kanpoko aldetik guardia emozu baxa bati, zeina [Unita] irlatikan kable bat apart eta noizere pasatu baituzu baxa muilla ahal dezakezu 20 brasetan.

Halaber iakin behar duzu Baldresitik eta Carabantko entradarat badirela 4 l; kosta hura datza nor nordest susuduest Carabanen trebesan den menditik, eta olierat badire 6 lekua eta mendia eta Cadolier dauntza noroest esuest hartzen duzula laurden bat nortetik edo hegoatik, ta olierko buruak badirudi cap de Toro gainean badu Ispillon iduri bat eta badu Irla bat hurbillean susuduestetik Caraboneko entradako leihorra Oliereraiñoekoa leihor arraso da, olierik urruitidañikan egiten du saihezzean Irlak balitu bezala.

Halaber Baldreseko Irlak eta holier nort esu eta dire 12 lekua Carabneko entradaren badire mendijak zeñak baitire Carabaneke aldaketan barneko aldetik beualmareseraiño.

Halaber iakiteko duzu holierko buruaren gainean leku ona da muiillatzeko eskilladorea uest suduestean eta punta noroestean uestean laurdenean eta izanen duzu abrio uest noroestetik nordesteraiño heldu zarella holiertik begirautzu baxa batetarik zeña baita estalia eta saistoa.

Halaber Dholier eta Curyko Irla nort esu hartzen duzula laurden bat nordestetik edo suduestetik eta dire 2 lekua eta Irla hark badirudi pika ba luxe luxe; irla hartarik L'Ermitarat badire 6 lekua eta pausu ona da parte guzietan eta dauntza est nordest uest suduest.

Halaber Ermiteko burua eta beualmaresko Irla noroest esuest hartzen duzula laurden bat estetik edo uestetik eta dire 4 l beualmaresko puntako entradako Irlak badirau Kanporat puntatikan eta bada baxa halto bat zeña ageri baita jusent laurdenas gerostik zertaneko aldetik baditu erroak eta nahi baduzu sarthu iduki behar duzu behar duzu deskubritua sues-



teko burua harik eta lehenbiziko zertaneko pasatuarte zara zaite istiborreko alderat han zinduben zunda berzan eta ez ioan khalaren gainerat zeren baxak baitire.

Halaber Balmaresko irlatiketa Goienerat badire bi lekua eta daunza nordest esuduest goiene da leihor halto bat, eta badirudi irla eta nahi baduzu muillatuko duzu 5 brasetan eta izanen duzu abrio suestetik eta uesteraiño baiñan esta garbia Ermitaren aitzinean garbia da.

Halaber iakin behar duzu Beaulmaresetarik ioatekotz khistrerat eramazula goiene buru harekin zeina baita handikan lekua batean gehiago khristre eramazu deskubritua galea baten luzetazunean noizere baitzare barrako entradan ikusiko tutzu Gasteluak eta noizere baituzu bat emanak, orduan izanen zare hers isenean goiene eta Port menu daunza est uest eta dire 8 lek.

Segidan dire Ternuako zundak hasten zarella Sen Tierretarik eta Cap de Grateraiñoak

Iakiteko duzu noizere kausituko baituzu zundan zernahirekin nahastatua Khristailla orduan izanen zare Cadarasik eta Concepcionik artean.

Iakiteko duzu noizere baitzare est suestean uest noroestean Cadarasekin kausituko duzu 107 brasa, harea xehea eta herrikolpeak.

Iakiteko duzu noizere baitzare Cadarasen gainean 60 brasetan kausituko duzu harea mesklatua gorriarekin eta khristail xeheak.

Iakiteko duzu noizere baitzare Cadarrasa gainean, 50 brasetan kausituko duzu khristailla eta harea xehea mesklatua artho xehea bezalako eta larrigoa ere.

Iakiteko duzu noizere baitzare 40 lekua zabal cap D'Esperatik kausituko duzu 80 brasa eta harrisko xabalak et belxak, eta khristaillehak artho xehea bezalakoak gehienak.

Iakiteko duzu noizere baitzare Sen Iango buruan kausituko duzu gauza bera ur handik eta harrikolpeak.

Iakiteko duzu noizere baitzare Irla de Chibausekin est suest uest noroest 20 lekua zabal, 50 gradu eta erditan kausituko duzu 125 braza harri kolpeak eta baldin handik ioaten bazare noroestean nortean laurdean ioanen tzare Groia eta Belila zertanekoaren bilha eta izanen duzu leihorrat 27 edi 30 lekua.

Iakiteko duzu noizere baitare 45 gradu eta bi herenetan kadarrasekin noroest esuest hartzen duzula laurden bat nortetik edo hegoatik, 35 lekua zabal kausituko duzu zundan, 35 brasa eta ekarriko duzu zundan Khristailla eta Korala nahastatua eta arruta hortan ioaten zarella zundatzen baduzu kausituko duzu 35 brasaren ingurua eta zundan ekarriko duzu seiñalea harrisko xabalak sagar pipita bezalakoak eta noizere hurbilzen baitzare leihorrat 25 lekoatarat kausituko duzu 45 brasa eta harri gogorrek eta harea gogorra eta belza nahaste.



Segidan dire Bankuko xorien ezagutzak

Iakiteko duzu noizere hurbilzen baitzare ternuago leihorretikan 100 lekoetarar kausituko duzu xori bels handi batzuk, zeina ezin bola baitaiteske eta eskaldunek deitzen tuste dukak, hek ikusten tutzunean bankarrengatik guardia emanen diozu zure buruari eta guardia emanaraziko zure iendeari.

Iakiteko duzu noizere hurbilzen baitzare bankurat, ikusiko duzu xori xuri haiñitz zeñak deitzen baituste eskualdunek usoak eta ondoan kausituko duzu komunski xori beltz batzu batzuk zeñak baitute moko luxea eta sabel xuria halakoak gutitan frogatuko duzu dabilzala bankuas hagitz atherat lekat bankuaren kantalean edo bankuas leihor aldetik baizen hartarakotzat halakoak iksten ditutzunean zunda etxea ahal dezakezu agian ondoa atrapatuko duzula.

Iakiteko duzu baldin zundatzen baduzu bankuas esteko partetik kantalean Bakaillauko Irlaren gainean eta atrapatzen baduzu zunda izanen duzu leihorrat 60 edo 70 lekoa.

Iakiteko duzu noizere hurbilzen baitzare leihorrat atrapatuko tutzu Potorro flotak 8 edo 10 edo 12 edo gehiago tropa bakotxean eta hala ikusten ditutzunean guardia emanen diozu leihorrari.

Iakiteko duzu ikusten baitutzu xori xuri handi batzuk marloiñak baino handiagoak eta lepho luzeak zeñak deitzen baituste eskaldunek gorrak, baita halaber xori belz batzuk zeñek baituste xango gorriak, zeinak deitzenbaituste eskaldunek xukutun xoriak; hek ikusten ditutzunean etzara hagitz urrun izanen eta egiñen diozube zebe buruei guardia.

Segidan dire Sen Pieretarik hasi eta Cap de Grateraiñoako arrutak eta entradak, eta errekestak

Iakiteko duzu Sen Pierretako uesteko burua eta Angeleterrako uesteko burua dauntzala noroest suest eta dire batetik bertzera 6 lekoa.

Iakiteko duzu S Pieretarik eta Cadarrairat dela arruta noroestean uestean laurdenean hartzen duzula apur bat noroestetik edo esperen suestean estean laurdenean hartzen duzula apur bat suestetik eta dire 38 l, baiñan iakiteko duzu S Pieretarik eta Cadaraik arteko kosta edo Berjesak deitzen direnak leku gaistoa dela, ezta baxa itzurik eta baxa ageririk eta irla xumerik baizen halaber iakin behar duzu goaia handiak dabilzala ezen konturik emanekoak, baita.

Iakiteko duzu Cadarrayko hegoako burua eta norteko burua dauntzala nort esu, eta dire 4 lekoa ; iakin behar duzu hegoako burutik lekoa erdi bat edo bi herenetan zabal hegoak burutik uest noroestean badirela bi baxa zeñaz doidoia ageri baitire, eta itsasorik batere denean hekien gainean hausten baitute. Halaber iakin behar duzu bi buruen artean dela portuba, zeña baita Irla Arraso batean, eta da norteko buruaren aldean. Halaber iakin behar duzu Portu xar bat dela eta nahi baduzu muillatu hango arradan muillatuko duzu zertaneko Ithurriaren trebesean, aingurak izanen diren lekuan, harea gogorra da eta hartarakotz han ere perill izanen duzu ibilzeas caseando, eta baldin eta ioaten bazare caseando atherat gustietan arrokarik baizen ezta, hartarakotz izanen zare abisatua nezesitateen ez harat eramatekotz.

Iakiteko duzu cap d'Arrayko norteko burua eta ulicilloko portua dauntzala est uest hartzen duzula laurden bat nordestetik edo suduestetik eta dire 12 lekoa. Iakin behar duzu ulizilho ezagutzekotzat badela Cadarrayk eta ulicilhorik artean bide erditan barratxo bat, zeñetan Xalupak sartzen baitire. Halaber iakin behar duzu berak baduela sarzean istiborreko aldetik irla bat, zeñak baitu oihana gainean irlarik eta zertanaririk artean baxamarean ezta ibilliko xaluparik, zeren ensekatzen baita. Halaber iakin behar duzu Irlaren arrasean atheko aldetik dela lau edo sei brasa ur eta noizere sartu nahi baituzu egiñen diozu amor istiborreko hareasko puntari apur bat, zeren puntas Barneko aldetik baita ur xumea



puntako harea hartan berean ondan ioanen zare istiborreko alderat lehenbiziko oihanaren trebeserat muillatzerat edo plazer duzun lekurat eta nahi baduzu emanen duzu probisa leihorrat.

Halaber, heldu zarenean athetik iakitekotz ea non den ulicilloko portua, ioanen zare fundamenean den mendirik handienetarat eta han kausituko ditutzu erran diren merka hauk eta potua. Halaber iakin behar duzu portu hark badirudiela athetikan estela unziaren egoteko lekurik harik eta bereran ioan artean, eta barnat sartus gerostikan hagitz da leku ona eta segura.

Halaber iakin behar duzu Cadarrayko norteko burua eta Sen Georgerko suduesteo punta dauntzala nor nordest susuduest eta dire 10 lekoa; halaber suduesteko puntatik eta Irlarat dire 2 lekoa.

Iakiteko duzu nahi baduzu sartu Sen Georgen Irla ababorreko aldetik utzirik ioan behar duzu zertanaren aldetik, zeren bitu zubi bat Irlako aldeti ur xumea duena, eta ioan beharko duzu hagitz barna zertaneko leihorra bezala muillatzerat, baiñan ezta handik sartzen untzi guti baizen eta guti kallatzen dutenak edo f[leu]lltak baizen. Nahi baduzu sartu Irla istiborretik utzirik entrada nausitik, deskubrizazu entrada gustia, zeren nordesteko puntak baititu baxak lekoa heren bat zabal bethi hausten dutenak, eta deskubritu ondoan ioanen tzare heoan barna harik eta irlako nordesteko punta ekar dezakezun artean noroesterat, hartzen duzula laurden erdi bat uestetik eta orduban izanen duzu barratxoa trebesean edo deus gutirik barnean suestean estean laurdenean, baiñan behar duzu hartu zabaltasuna leihorretik edo zerthanetik lekoa erdi baten inguruba.

Halaber iakin behar duzu Sen Georgetik Oporportuko entradarat direla 7 lekoa eta auntza nordest suduest hartzen duzula apur bat nortetik edo hegoatik.

Halaber iakin behar duzu Sen Georgetik eta Portu Xarrerat direla 3 lekoa eta da Portu Xarra buru handi askenekoaren aspian.

Iakiteko duzu Portu Xarretik eta Oporportuko entradart direla lau lekoa eta gustietan kosta arrasoa da platanadi bat bezala, eta apartatuko zaisko apur bat kosta hari, zeren arroka batzuk badire kosta bera bezala, eta noizere baitzare puntan, iakin behar duzu punta har baduela zubi bat zeina baithoa trebeserat edo baia erdirat bezala, hartarakotz bada erabilliko duzu bethi zunda, zeren zubiaren gaiñean ur xumea baita hartarakotz bada deskubrituko duzu baia guzia nordesteko arruta hartan hartzen duzula apur bat nortetik, eta noizere baitu gustia deskubritua, ioanen zare grauaden leihorren aldetik edo idukiko duzu barnerakoan istiborreko aldeko leihorrenekin eta grauada kosta Platanadi iduri hartan, eta ioanen

zare barnat harik eta ababorreko leihorreen den buru handiaren trebeseraiño eta muillatuko duzu grabaren eta buruharen trebesean baldin unzi handia baduzu muillatuko duzu buru handi hartarik abusta bat zabal, 16 edo 18 brasetan. Iakiteko duzu bertze batzuek muillatzen dutela grabetik bi abusta zabal, baiñan abisatzen zaitut Oporportuko puntatik nor noroestean barna badirela bi baxa itsu lekoa bat edo bat eterdi zabal leihorretik, zeinetan hagitz behar baitu itsasoa eder baldin hekien gaiñean itsasok hausten espadu. Halaber abisatzen zaitut Sen Georgetik zoazenean eta oporreko baia deskubritzen duzunean ez sobera kurri aitziañat, zeren barraxoko alderat baxak baitire.

Gero iakin behar duzu badirela bi senadi buru hartarik eta tres Irletako Grat lekuraiñoakoan, eta diraute senadihek bi lekoa, eta Grat lekua da oporportutik bigarren burutik tarte batean berehala, Grat lekuko burua da buru bels handi bat; handik baduzu berze buru handi bat tres Irletako burua baiño lehen, eta gero ondoko punta edo burua izanen da Tres Irletan sartzeko burua edo deitzen dutena Fraideko burua; baldin nahi baduzu sartu edo ioan tres Irletan muillatzerat ioanen tzare Irla guziak ababorretik utzirik, eta ioanen zare Fraideari d'atxequan leihorren arras, eta kausituko duzu senadi handi bat zeinari baitaritza baia xarra; hura iragan eta ondoan ikusiko duzu barnat sarzeko entrada, eta sarzean ababorreko aldetik duela graba hartarakotz bada ioanen zare zertanarik eta grabarik artetik apur bat amor egiten diozula grabeko puntari, zeren mihi bat baitu, eta ondoan ioanen zare barnat muillatzerat grabaren trebeserat edo plazer duzun lekurat, zeren susuesteko haizeak zeinbait aldiz ezin erranesko haizeak egiten baitu portu hartan.

Halaber iakin behar duzu portutxoko suduesteko puntarik eta baia ederrarik artean badela portu bat zeinetarat ioaten baitire portutxorat doazen unziak edo dela bankas edo haizea kontra izanes, eta portu hura deitzen da aingura xarreko portua, eta da portutxo suduesteko puntatik harat bi lekoa xume, eta daunza nort nordest susuduest.

Iakiteko duzu tres Irletarik lau lekoetan direla kosteler bat edo baia ederretik suduesterat bi lekoetan, zeinetan xalupa leihorrat lanxatuko baituzu eta emanen itsasoaren perillik izanen estuben lekura.

Iakiteko duzu Portutxoan sarthu nahi baduzu lehenbizirik egorri behar duzu xalupa leihorrat, baldin unzi handia baduzu ematerat buia bat blaxadiko puntaren gaiñean den ur xumean; blaxadia da sarzean ababorretik eta utziko duzu buia hura sarzean ababorretik, eta ioanen zare buia hari apur bat amor egiten diozula, baiñan zenbait gerthazen da zirga istibor alderat edo zertanerat ematen dutela hartarakotz ori liteke han har-



tuko den penagatik, han ere eman ledin buia bat, zundas miraturik ea non den athereneko punta, zeña baita deus gutirik barnean berze buia izanen den trebesean; halaber iakin behar duzu lehen erran dut on litekela istiborreko aldean ematean buia, orai hobeki erranen darotzut kxanalaren erdiaz aphur bat sarzean, istiborreko aldetik badela blaxadi zuri bat, zeñaren gaiñean baxamarean baita sei beso ur, eta hartan emanen duzu buia bat, ezta urrun handi blaxadiaren puntaren trebesetik, eta utziko duzu hura sarzean istiboretik entrada hura hagitz da xumea buia batetik bertzerat, eta da baxamarean hirur braza ur, eta baldin baxamarean ioaten bazare zertaneko blaxadi hartan buia ematerat ikusiko duzu bera zuri xuria, eta noizere sartzen baitzare zar zaite barnat istiborreko alderat bezala harik eta ithurriaren trebeseraño bezala, eta muillatuko duzu; muillatu ondoan emanen duzu amarra bat blaxadirat, unzia eramatekotz kaiaren trebeserat, eta han amarratzen dute lau amarretan aitzen gibeletarik xalupa buthatzen dutenean ezkus kaiatik arrabik hartu gabe unzirat dohaken gisa portutxoa, nola baita xilo bat menturas xalupan ioaten direnak baldin apendizak badire eta iragaten badire suesterat arrapatuko dute tarte bat portutxoas suesteratago, zeina deitzen baitute barbort zilho, baiñan iakiteko duzu portutxoak badubela irla bat erdian, zeñetan hirur garrenak arrain aphainzeko kaia egiten baitu, baiñan Barbot xilok estu halako irlarik, huntan ezagutuko duzu portutxoa egizu kontu dela batetik bertzera musketa tiro baten arrastoa.

Halaber iakiteko duzu baldin ioaten bazare Barbort xilotik suesteratago halaber bertze musketa tiro kolpe bat kausituko duzu baia bat zeña deitzen baita portutxo zaharra, bainan munduba portutxoan unzia amarratzen atrebitus gerostik esta ioaten harat unzirik.

Halaber iakin behar duzu nahi baduzu sarthu ferrolgo portuban, eztela errekarik amuixtik eta ferrolgo artean, eta ferrolek du entradaren erdian irla bat grau puska bat dubela, eta grabarik eta irlarik artean da baxa handi bat arroka ageri bat edo irla bat, eta da graba sartzean ababorreko aldetik, eta ioanen zare muillatzerat irla ababorretik usten duzula plazer duzun lekurat; batzubek ematen dute probisa grabean finkaturik, bertzeek amarratzen dute plazer duten lekuan, zerrori darrotzut hori.

Halaber iakin behar duzu unziak herrirat bela egitekos ioaten direla ferrol zaharrerat edo Españollek deitzen dute etxaire; portu hura da ferroldik lehenbiziko senadian eta amarratzen dire unziak senadi haren uesteko burubaren kontra probisa ematen dutela leihorrat, eta handik harzen dute denbora bela egitekotz, eta da senadi hura noroesteko partetik edo amuixko partetik.

Hemen emanen dut abisu bat baia hartan dabilza pilotu edo maistru lekuko berria eztakitenei arruta hautan tronpa estaitezen hagitz direla leku hartan goaia ezin konturik emanekoak, eta komunski goaiek hagitz manatzen dute hegoako aldeko leihorrerat hartarakotz idukiko duzu baia erdiarekin edo aphur bat balsamuko leihorrarekin; halaber iakin behar duzu baldin bazare baia erdian aboatzen dudala kanporat ilkitzekos kanal hura datzala estuest, baiñan hartu behar duzu laurden erdi bat nordestetik han abilzan goaiengatik eta esparanza dut ungi ioanen zarella.



Segidan dire cap de Rutk nola ioan behar den Irla de Perza basterretarat, eta hetako arrutak eta portubak eta ankrazoiñak

Iakin behar duzu Cap de Ray eta xoritako Irlak daunzala noroest suest, eta dire hogoi eta sei lekoa, baiñan iakin behar duzu lekuhetan hagitz dabilzala goaia handiak ezin konturik emanekoak, eta halaber iakiteko duzu xoritako Irlas santakurutz alderat hagitz direla leku gaiztoak, sekera haiñitz eta baxa haiñitz; hartakotz eman behar da arruta noroetan noroestean laurdenean, edo gutienean nor noroestean hartzen duzula pahur bat noroetan noroestean laurdenetik harik eta estimatzen duzun artean ekarri ditutzula xoritako Irlak suduestean hegoan laurdenerat edo suduesterat bertzela ematen baduzu arruta noroesteratago beldurtazun handia hartu beharko duzu beldurres goaiak eraman zaitzan xoritako irletarat, eta handik emanen duzu arruta kartak ematen darotzun arrutan denboraren errespetarat, nitas denas nahiago nuke iduki aphur bat natis-koteko leihorreakin, zeren natis-koten leihor handiak baitire eta urrundani-keri ageri baitire, eta asaiatuko zare Irla de Capusalen edo esperen deitzen dute bona Bentura haren bilha ioaterat.

Iakiteko duzu nahi baduzu amarratu Irla de Capusalen amarratuko zare baldin albirant bazare grabaren trebesean kaiatik unzirat adiarazi dezakezun bezala oihuba noroesteko partetik.

Iakiteko duzu Irla de Perza dela Irla halto bat eta irla de erditik xilahatuba eta xilho hartarik pasatzen da marean xalupa batetik berzera. Iakiteko duzu irla hartaraiño ensekatzen dela baxamarean.

Iakiteko duzu han muillatzekotz muillatzen dutela irla Gerize harturik leihorras suesteko partetik, han amarratzekotz. Iakiteko duzu amarra hagitz onak behar direla eta ungi behar dire lauiatu, zeren haiñitz aldiz goaia alde batetik eta haizea berzetik, eta unzia den lekuban estuzu izaren haize erratekotik eta goaiak alxarasten duben esklataiak hagitz unziari arrola arasten dio, eta handik arrokek kableak pikatzen dituste, hartarakotz ematen tuste eprezükiko lauia batzubenk piñus, zeñak baitire tirtotxa bezain arin, eta errekuritzen tuste igande gusties arranzalek bertze obra gustiak utzirik.

Iakiteko duzu Irla de Perce eta Forcemolueko Irla xumea daunza nordest suduest, eta dire hirur lekoa xume; Forsemolueko Irla punta beraren gainean da Irla Percerik eta forcemoluerik arteko bide hark badirudi baia bat baiñan barne hartan ezta barratxo bat baizen, eta barna hartarat ezta ioaten unzirik.

Iakiteko duzu Forcemolueko puntan badela senadi bat zeñetan Caispekoek hart grata egiten baitute, eta unzi xume batzubenk amarratzen dire eta egiten kostera leihorras nordesteko partetik edo kaispeko aldetik.

Iakiteko duzu Forsemolueko punta eta caipesko punta dire nordest suduest hartzen duzula laurden bat estetik edo uestetik, eta dire hirur lekoa, eta Caispeko puntak badu Irla xume bat puntan ez hari sobera hurbil denbora kalmekin, zeren erremulia handia dabilla bira.

Iakiteko duzu handik eta graberat edo unziak muillatzen duten lekurat bada lekoa xume bat eta han amarratzen tuste unziak kaiaren trebesean eta finkatzen dute probiza leihorrean.

Halaber, baldin ioan nahi baduzu fundamenerat edo dela amarra gabes edo berze fazoiñes, ioanen zare istiborreko leihorra bezala apur bat amor egiten diozula harik eta ababorreko ladeko hareazko puntaraiño, eta egiñen diozu amor hagitz punta hari, zeren lehenik egorri behar baituzu buia hura leihor aldetik, eta gero buia doblatu ondoren ioanen zare ababorreko alderat plazer duzun leihor, eta emanen duzu kable on bat edo ahalik hoherena noroesteko baiarat, eta berzeak zure komoditaterat.

Iakiteko duzu irla de perceko suduesteko burua eta chegoanchisko punta daunzala nordest suduest harzen duzula laurden bat nortetik edo hegotatik, eta dire hamasei lekoa.

Iakiteko duzu chegoanchisko puntari etzaiskola hurbildu behar hemezorzi brasa baino gutiagotarat, zeren handik bi agustat egin baino lehen izaren duzu hamabi brasa Chegoanchisko kosta gustian Karakik iragan artean, eta hamabi brasetarik berze bi agustaren burukotz kurri edo lau eta leku batzubenk ikusiko duzu leihorrat zarella bi lekoa, eta izanen duzu lau brasa eta haiñitz lekutan menturas izaren zare lekoa baten arrastoa zabal, baxamarean xalupa enkailla daiteke gehien lekutan harea gogorra da chegoanchisko punta beraren gainean harea pugubek urrun diraute eta izaren zare abisatuba chegoanchisko puntatik eta Karakik iragan artean leihorhek hagitz dire arrasoak eta planak, zeñetan ezpaita posible leihorrik ezagutzen ungi, non estuzun xalupa leihorrat egorzen edo behartu hura ezagutuko dubenak pezabiako leihorrek ezagutu, zeren noroesteko leihorrek mendi ezagutzeak baitire, eta ezagutu ondoan leihor



hetarikako arruten arrespetura hobekienik ezagutzen dute; hartakotz eman ditugu hemen hetako arrutak, iakiteko duzu seken zeina baita pezebiakoak grata egiten duben lekuba, eta Chigoanchis daunza nort esu hartzen duzula aphur bat noroestetik, eta dire 12 lekoa.

Halaber iakin behar duzu Pezebiak eta estanzia daunza edo Pecheguy daritzan baia nordest suduest, eta dire hamalau lekoa, bainan iakiteko duzu menturas handik zerbiat beharres ioaten bazare estanzia hura da baian barna, baiñan iakiteko duzu noizere baitzare xaluparekin edo garraioarekin tarte herzi batean eta baldin ioaten bazare baxamara denean, ioanen zare sarzean istiborreko puntarat iendeen etxatzerat, zeren baxamarean xaluparik ezta iraganen baldin khanalen berria espada-ki estanziarat eta estanzia da punta hartarik bigarren senoan, eta ezta ageri harik eta bererat ioan artean istiborreko aldean egizu kontu badela puntatik lekoa erdi bat.

Iakiteko duzu baldin bazabilza luetan hagitz dabilzala goaia handiak, eta komunski esterat hartzen dubela nordestetik, eta baldin bazare segoanchisko aldetik ez hurbil hemezortzi braza baino gutiagotarat, eta baldin bazare norteko partetik ez hurbil hogoi eta bortz brasa baiño gutiagotarat, baldin ioan behar baduzu Karakirat eta baldin gerthatzen bazare chegoanchisko aldetik eta kalmatzen bazaitzu, hobeki egiñen duzu iotea hemezortzi brasetarat han muillatzen baduzu, zeren berzela goaiak koratuko zaitu.

Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu edo sarthu chegoanchisen ioanen zare suduesteko punta suesterat ekarri artean, eta muillatuko duzu hemezortzi brasetan, eta handik hartuko duzu marea, eta denbora sartzeko lehenetan ematen zitusten buiak han sartzekotz, bainan diote khanalaren entrada deskubritus gerostik ioan behar dubela suduesteko punta bererat, eta bethi ur handia kausituko dubela, baiñan niri apredizenzat leheneko zaharren legea hobe zait buien ematea: hango penagatik barnat sarthus gerostik ioan behar duzu muillatzera entradas den ababorreko punta arraso baten gerizerat, edo lehenbiziko punta meharraren gerizerat, zeina baita piñalak egiten ditusten punta, eta kaia egiten dutena, eta ioanen zare amarratzera kaia egiten den lekurat, eta hañitzek ematen dute probiza leihorrat.

Halaber iakin behar duzu nahi baduzu sarthu Karakiken, lehenik egorriko duzu xalupa buien khanalean ematerat eta lehenbiziko aingura muillatu behar duben lekuban ematerat, baiñan khanalean hobe liteske bi aldetarik ematea, zeren ez baten bezala baita khanala, eta khanalak badi-

rau lekoa baten arrastoa arradarat ioan behar du hamabi brasetarat, eta handik hartu behar du haize largoa eta marea.

Iakiteko duzu Karaxiko Irla hagitz dela gaitz ezagutzea, zeren ezpaita apart zerthanetik, eta irla bera oihana baitu zerthanak bezala.

Halaber nahi baduzu ioan Pezebiakat ioanen zare senadi hartan edo portu hartan den leihorrik haltoenaren trebeserat, zeina baita sarzean ababorreko aldearekin, eta ethorriko zaitzu noroesta leihor handien haren gaiñetik, eta muillatuko duzu leihorretik bi agusta zabal, eta han zarela seguratzekotz mendi handi harik eta grabarik artean bada barratxo bat zeinñetan sartzen baitire xalupak.



**Segidan dire ilhargia zein
nahi haizetan denean ea
zenbat orenetako
plemara den**

Menturas zenbait izaren da ilhagiaren egunak iakiñes gerostik edo dela Epakta kontubaren medios edo dela Armainakaren medios espaitu penarik hartu nahi marea kontu hori on atheratzen bada halakoenzat segidan izaren dira zeinbait thaula zeinetan espaitu behar egin deusik lekat lehenbizirik, ioan behar du marea kontra iakin nahi duben lekuban, ea ilhargia plemara denean zein baizataratzen den 20, zenbat egun duben ilhargi berriak edo betheak orobat da thaula hautan 30, ioan ilhargia haize hartaratzen den thaularat eta bilha desiratzen duen eguna eta egunaren xuxenean kausituko duzu zenbat oren eta zenbat minutetan izaren den plemara egun hartan.

**Segidan dire ea nola kausitu
behar den, ea den bitsuste
urthea edo zenbat garren
urthea den**

Nahi baduzu kausitu ea den bitsuste urthea edo zenbatgarren urthea den ala den lehenbiziko urthea ala bigarrena ala hirugarrena.

Lehenbizik zuk urthe desideratzen duzunik kendu behar ditutzu milla eta sei ehunak, eta zenbat errestatzen baita, hura parti laues zergatik lau urthetarik lau urthetarat baita bisuste urthea eta baldin errestatzen bada partizioñearen gaiñeko aldean batekoa izanen da lehenbiziko urthea, eta baldin errestatzen bada partizionearen gaiñeko aldean bia, izanen da bisustetik bigarren urthea, eta baldin partizionean errestatzen bada gaiñeko aldean hirur izanen da bisuste urthetik hirugarren urthea, eta baldin partizionearen gaiñeko aldean espada deus errestatzen edo heldu bada izero izanen da urthe hartan bisuste urthea.



**Segidan da deniz Diapan
erregeren ordenaz pilotukoa
irakazten duenak berrito
egiñikako iguzgiaren
deklinazonearen thaula**

Iguzkiaren deklinazionea eman baiño lehen abisatu behar zaitut marxoaren hogoiyea eta setemeren hogoi eta biyea iguzkia liñan dela.

Eta baldin harzen baduzu haltura marxoaren 20etik eta setemeren 22año, nola iguzkia liñaz haltoago, edo norteko bandan baita denbora hartan haltura baleztrillas harzen baduzu, begiaren eta martilluaren arteko graduei ajustatu behar diotzatzula deklinazioneko Thaulak egun hartan ematen tuben gradu eta minutak.

Eta baldin harzen baduzu haltura setemeren 22tik eta marxoaren 20ño, nola iguzkia liña baiño baxoago, edo hegoako bandan baita, begiaren eta martilluaren arteko gradu eta minutetarik kendu behar tutzula iguzkiaren thaulak egun hartan ematen tuben gradu eta minutak, eta fazoin huntan kausituko duzula zure lekuko nortesuko gradizionea, edo haltura.

**Segidan dire guardak ea zer
denboretan edo zenbat
egunen buran haize laurden
batez tardatzen duben**

Horren egitekotz iakin behar duzu urthe bates duen tardamenduba dela 24 orenena edo baldin egun badire guardak estean ianbieren hogoi eta borzean gaberditan, estire izanen berris guardak estean edo hurreneko urthean ianbieren hogoi eta borzeraiño, hartakotz bada badkizu urthean egiten duben tarramendu gustia dela 32 haize laurden bada halaber badakizu urthe komunak ditubela, 365 egun, baldin bitsuste urthea espada eta bitsuste urthean direla 366 egun, kontu hau izanen da hirur ehun eta hirur hogoi eta bortz egunduben urthekotz zeren nola baita gaitz ezagutzea goardetan minuta batetaraño hargatik ematen ditut 365 egun kontu hunen egitekotz, zeña egiten baitut fazoin huntan 365 egunak partitzen tut 32 haize laurdenez eta heldu dire 11 egun, eta errestatzen dire 13 egun.

2ean, 13 horiok ekartzen tut orenetarat, 24 multiplikatzen tudala, eta heldu dire 312 oren hauk partitzen tut 32 haize laurdenez, eta heldu dire 9 oren, eta errestatzen dire 24 oren.

3ean 24 oren hauk ekartzen tut minutetarat multiplikatzen tudela 60, zeren orenean 60 minuta baitire, eta heldu dire 1440 min.

4ean 1440 minuta hauk partitzen tut 32 haize laurdenez, eta heldu dire 45 minuta, edo oren baten hirur laurden errepusta, 11 egun, 9 orenes eta hirur laurden.



Segidan da gau herdi denean, ea guarda zein haizetan den hemen ematen tugun egunetan

Ianbieretz

Ianbieren hirureun gaberdi izanen da guarda est suestean denean.
Ianbieren hamabortzean gaberdi izanen da guarda estean denean.

Febreroz

Febreroen seican gaberdi izanen da guarda estean nordestean laurdenean denean.

Febreroren hemezortzian gaberdi izanen da guarda est nordestean denean.

Marxoan

Marxoaren lehenean gaberdi izanen da, guarda nordestean estean laurdenean denean.

Marxoaren hamahirurean gaberdi izanen da, guarda nordestean denean.

Marxoaren hogoi eta labeen gaberdi izanen da guarda nordestean nortean laurdenean denean.

Aphirillean

Aphirillaren bortzean gaberdi izanen da guarda nort nordestean denean.

Aphirillaren hamaseicetan gaberdi izanen da guarda nortean nordestean laurdenean denean.

Aphirillaren hogoi eta zazpian gaberdi izanen da guardak nortean denean.

Maiatzean

Maiatzaren bederatzian gaberdi izanen da guarda nortean noroestean laurdeandean denean.

Maiatzaren hogoicetan gaberdi izanen da guarda nort noroestean denean.

Iuñean

Iuñaren lehenean gaberdi izanen da guarda noroestean nortean laurdenean denean.

Iuñaren hamabian gaberdi izanen da, guarda noroestean denean.

Iuñaren hogoi eta hirurean gaberdi izanen da guarda noroestean uestean laurdenean denean.

Iuillean

Iuillaren bortzean gaberdi izanen da, guarda uest noroestean denean.

Iuillaren hamaseicetan gaberdi izanen da, guarda uestean noroestean laurdenean denean.

Iuillaren hogoi eta sortzian gaberdi izanen da guarda uestean denean.

Abostuan

Abostuaren sortzian gaberdi izanen da guarda uestean suduestean laurdenean denean.

Abostuaren hemezortzian gaberdi izanen da guarda uest suestean denean.



Setemez

Setemeren lehenean gaberdi izanen da guarda suduestean uestean laurdenean denean.

Setemeren hamekean gaberdi izanen da guarda suduestean denean.

Setemeren hogoi eta hirurean gaberdi izanen da guarda suduestean hegoan laurdenean denean.

Oktobrez

Oktobreren labean gaberdi izanen da guarda susuduestean denean.

Oktobreren hamabortzean gaberdi izanen da guarda hegoan suduestean laurdenean denean.

Oktobreren hogoi eta zazpian gaberdi izanen da guarda hegoan denean.

Nobenbrez

Nobenbreren zazpian gaberdi izanen da guarda hegoan suestean laurdenean denean.

Nobenbreren hemeretzian gaberdi izanen da guarda susuestean denean.

Dezenbrez

Dezenbreren lehenean gaberdi izanen da guarda suestean hegoan laurdenean denean.

Dezenbreren hamabian gaberdi izanen da guarda suestean denean.

Dezenbreren hogoi eta hirurean gaberdi izanen da guarda suestean eanean laurdenean denean.

Segidan ilhabethe guzitean alba denean guarda zein hartzetan den

Ianbieren

Ianbieren hamarreen guarda nortean nordestean laurdenean.

Ianbieren hogoi eta bortzean guarda nortean alba.

Febreroz

Febreroren hamarreen guarda nortean noroestean laurdenean alba.

Febreroren hogoi eta bortzen guardat nortean alba.

Marxoan

Marxoaren hamarreen guarda nortean noroestean laurdenean alba.

Marxoaren hogoi eta bortzean guarda noroestean laurdenean alba.

Aphirillean

Aphirillaren hamarreen guarda noroestean alba.

Aphirillaren hogoi eta bortzean guarda noroestean alba.

Maiatzan

Maiatzaren hamarreen guarda noroestean uestean laurdenean alba.

Maiatzaren hogoi eta bortzean guarda uestean noroestean laurdenean alba.

**Juñean**

Juñaren hamarrea guarda uestean alba.
Juñaren hogoi eta bortzen guarda uestean alba.

Juillan

Juillaren hamarrea guarda hegoan suduestean laurdenean alba.
Juillaren hogoi eta bortzean guarda suduestean hegoan laurdenean alba.

Abostuban

Abostubaren hamarrea guarda hegoan suduestean laurdenean alba.
Abostubaren hogoi eta bortzean guarda hegoan alba.

Setemez

Setemeren hamarrea guarda hegoan suduestean laurdenean alba.
Setemeren hogoi eta bortzen guarda suestean hegoan laurdenean alba.

Oktobrez

Oktobreren hamarrea guarda suestean alba.
Oktobreren hogoi eta bortzean guarda suestean estean laurdenean.

Nobenez

Nobenezaren hamarrea guarda estean suestean laurdenean alba.
Nobenezaren hogoi eta bortzen guarda estean norddestean laurdenean alba.

Dezenbrez

Dezenbrezaren hamarrea guarda norddestean estean laurdenean alba.
Dezenbrezaren hogoi eta bortzen guarda norddestean nortean laurdenean alba.